

ANTOLATZAILEAK:



*saregabe*

## SANTURTZI - SANTURZINE JAIALDIAREN FILM LABURREN

### II. GIDOI-SARIKETA

**Saregabek antolatutako Santurtzi-Santurzine jaialdiak FILM LABURREN II. GIDOI-SARIKETA deitu du, Frk8 Films Kultura Elkartearekin lankidetzan.**

**Generoa:** Film laburraren gidioa, gai librea.

**Saria:** 500 euro eta ekoizpen eta banaketan laguntza izateko aukera.

**Norentzat:** edozein herritartasun edo bizileku dutenentzat, Euskal Herrian jaio edo erroldatutakoentzat, hala adin nagusi edo adin txikientzat (adin txikientzat ikus ERANSKINA)

**Deialdia egiten duen erakundea:** Saregabe – Creación y Difusión Cultural elkarte, Frk8 Kultura Elkartearekin lankidetzan.

**Deialdia egiten duen erakundearen herrialdea:** Espainia

**Epemuga:** 2018ko irailaren 2a

#### Deialdiaren xedea

Santurtzi - Santurzine Jaialdiaren Film Laburren II. Gidoi-sariketa Saregabe – Creación y Difusión Cultural ([www.saregabe.eus](http://www.saregabe.eus)) elkarteak deitu du, jaialdia antolatzen duen elkarte bera, Frk8 Films Kultura Elkartearekin lankidetzan, jaialdian aurkezten den film laburraren gidio onenari saria emateko, zinematografia-gidoiak egitea sustatzeko eta Euskal Herriko gidoilariak ikusgai jartzeko. Hori guztia, jaialdiak duen helburuaren barruan, zein zinematografia-eremuan ahots berriak aurkitu eta ikusgai jartzea den.

#### Parte-hartzaileak

Edozein pertsonak har dezake parte, profesional izan zein ez, adin nagusi edo adin txikiek eta edozein herritartasun dutenek, Euskal Herrian jaio edo erroldatutakoek. Adin txikiek eranskina aurkeztu beharko dute arduradun legalak, aitak edo amak sinatuta. Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar eta oinarriak edonoz ikus daitezke.

#### Bidalketaren baldintzak

1. Gidoiek euskaraz edo gaztelaniaz egon behar dute idatzita eta argitaragabeak izango dira. Ezin dira ekoiztuak izan, ez eta ekoizteko prozesuan egon ere.
2. Gaia librea da eta 3 eta 15 orrialde bitartekoa izango da, azala edo testua osatzen duten pertsonaien deskribapenak edo bestelako materialak kontuan hartu gabe. Orrialde kopurua gainditzen duen lan oro deskalifikatuko da.
3. Estandarizatutako formatu profesionalera egokitu beharko zaio eta Courier New 12 letra motan idatzita, orrialde batez. Gidoiak PDF formatuan bidaliko dira soilik.

ANTOLATZAILEAK:



*saregabe*

4. Gidoiak beste lehiaketa batzuetan aurkeztuak izan daitezke, baldin eta eskubideen lagapena ekarri ez badu, baina saririk jaso ez badute beste jaialdi edo lehiaketa batean.
5. Ez dago gidolari-kide kopururik lan bakoitzeko.
6. Egileek gidoi bana bidal dezakete gehienez.
7. Parte-hartzaileek idazkia aurkeztu beharko dute, zeinetan adierazten duten aurkeztutako eduki guztien ustiatzeko eskubide guztien titularrak direla, eta jabetza intelektualaren eskubideen inguruko edozein arau-hauste edo bestelako arau-hausterik gertatuz gero erantzuleak izango dira. Dokumentu horrek adieraziko du testua berea dela eta ez dela aurretik ekoiztua edo saritua.
8. Lehiaketan ezin izango dute parte hartu Santurtzi – Santurzine Jaialdiko edo Frk8 Kultura elkarteko kideek edo beren senideek.
9. Hurrengo dokumentu hauek bidali beharko dira: (1) 7. atalean azaldutako baldintzak dituen zinpeko deklarazioa; (2) gidoiaren kopia ezizenarekin; (3) egilearen CV laburra; (4) gidoiaren izenburua, egilearen izena eta ezizena, argumentuaren laburpena, eta harremanetarako helbidea eta telefonoa dituen orria eta (5) NAN edo pasaportearen kopia.
10. Aurreko edozein dokumentu ez egoteak kanpoan geratzea ekarriko du.

#### **Bidaltzeko era**

Lanak [secretaria@santurzine.es](mailto:secretaria@santurzine.es) helbidera bidaliko dira eta hurrengo gaia jarri beharko da:  
“SANTURZINE II. GIDOI-SARIKETA”

#### **Jasotzeko epemuga**

Epea 2018ko irailaren 2an bukatuko da, 23:59ean.

#### **Sariak**

- Gidoi irabazleari 500 euro emango zaio, bai eta Frk8 Filmsen eta Saregaberaren laguntza izateko aukera ere, ikus-entzunezkoa ekoizteko eta banatzeko.
- Gidoia ekoiztuz gero, sortzen den film laburra jaialdiaren programazioan sartuko da.
- Saririk jasotzen ez duten gidoiak suntsituko dira gidoi irabazlea zein den jakinarazi ondoren.

#### **Epaimahaia eta erabakia**

- Epaimahaiak gidoiaren kalitatea, interesa, bideragarritasuna eta karga bisuala baloratuko ditu. Epaimahaiaren erabakia gehiengo soilak hartuko du.
- Epaimahaia sektoreko profesionalek osatuko dute eta erabakia apelaezina izango da.
- Epaimahaiaren erabakia Santurtziko Film Laburren Jaialdiaren Amaiera Ekitaldian jakinaraziko da, 2018ko urriaren 20an, bai eta jaialdiaren, Saregaberaren eta Frk8 Films elkartearen sare sozialen bidez ere.

ANTOLATZAILEAK:



*saregabe*

## Informazioa eta harremanetarako

[secretaria@santurzine.es](mailto:secretaria@santurzine.es)

## ERANSKINA

..... NAN/AIZ/Pasaporte duen .....  
jaun/andreak, ..... adin txikiaren aita/ama/tutore gisa, BAIMENA  
EMATEN DIO SANTURZINE, SANTURTZIKO JAIALDIAK Frk8 KULTURA ELKARTEAREKIN BATERA  
antolatutako 2018ko FILM LABURREN II. GIDOI-SARIKETAN parte hartzeko, eta oinarriak ezagutu eta  
onartzen dituela adierazten du.

Tokia, data eta sinadura: